



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

Euskal kasuan izandako  
**bizitzeko eskubidearen**  
**aurkako urraketen**  
argazkiak, **herriz herri**

---

**Errenteria, 1960-2010**

(Bigarren edizioa)

**2016ko azaroa**

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

Euskal kasuan izandako  
**bizitzeko eskubidearen**  
**aurkako urraketan** argazkiak,  
**herriz herri**

---

**Erreteria, 1960-2010**

Bigarren edizioa

**2016ko azaroa**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



## Aurkibidea

---

|             |   |
|-------------|---|
| Aurkezpena. | 6 |
|-------------|---|

---

### I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

|   |    |
|---|----|
| 1. ETAm eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.       | 9  |
| 2. GALEk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.               | 31 |
| 3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. | 35 |
| 4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak.                | 41 |

---

### II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**.

---

|                                   |    |
|-----------------------------------|----|
| Erabilitako iturri eta zerrendak. | 47 |
|-----------------------------------|----|

---

---

## Aurkezpena

---

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

*Erretratu* bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

*Aitortutako biktima* horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzazieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutaz dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrenean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezur-mamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.





---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 1. **ETAm** eta **ETAk** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Jose Maria Sarrais Llasera

---

**Data:** 1978/12/05.

**Adina:** 56 urte.

**Destinoa:** Errenteriako (Gipuzkoa) polizia-etxea.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Poliziaren komisarioa. Errenteriako polizia-etxeke komisario nagusia.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostian (Gipuzkoa), Amara auzoko Urgull tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean beste bi polizia hil zituzten: Gabriel Alonso Perejil komisariorordea eta Angel Cruz Salcines udaltzaina.

# 2

## Sixto Holgado Agudo

---

**Data:** 1979/09/26.

**Adina:** 46 urte.

**Non jaioa:** Bañobárez (Salamanca).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Zortzi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Taxilaria. Aurretik, lau urte eman zituen udaltzain. Coca-Cola enpresako banatzailea ere izan zen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Gorpua San Marko zabortegiaren ondoan agertu zen, Errenteriako Beraun auzotik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 3

## Miguel Rodriguez Fuentes

---

**Data:** 1980/02/08.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Argoños (Kantabria).

**Destinoa:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako Infanteriako komandantea. Errenteriako Don Bosco Lanbide Eskolako Automobilismo Saileko irakaslea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tiro egin zioten, Errenteriako Don Boscon eskola amaitu eta gero etxera joateko asmoz autora sartzeraz zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 4

## Benito Morales Fabian

---

**Data:** 1980/10/02.

**Adina:** 40 urte.

**Non jaioa:** Santibáñez el Alto (Cáceres).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Taxilaria.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Gorpua goizaldean aurkitu zuten taxi barruan, Errenteriako N-1 errepidean, ETako kide baten telefono-deia jaso ostean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 5

## Antonio Diaz Garcia

---

**Data:** 1981/01/05.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Donostia (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Errenteriako La Gramola pubaren jabea.

**Egilea:** ETAm. Zenbait iturri eta zerrendatan, atentatua Komando Autonomoei egozten zaie, talde horrek, antza denez, hainbat dei egin baitzituen Bilboko hedabideetara, atentatua bere gain hartuz (*El País*, 1991/01/08). Dena dela, ETAm-k faltsutzat jo zituen deiak, eta atentatua bere gain hartu zuen *Egin* egunkarian 1981eko urtarrilaren 7an ateratako informazio batean, gertatutakoaren berri zehatz-mehatz emateaz batera.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Nafarroa Hiribidean, bere etxe atariko eskailera-buruan hilik aurkitu zuten goizaldeko 6etan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua. Bi bala-zauri zituen buruan.

# 6

## Jose Fragoso Martin

---

**Data:** 1982/02/16.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Larache (Maroko).

**Bizilekua:** Errenteriako (Gipuzkoa) Lartzabal auzoa.

**Destinoa:** Pasaiako (Gipuzkoa) portuko zerga-zerbitzua.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere auto barruan, buruan tiro bat zuela. Autoa Errenteriako Lartzabal auzoko bere etxearen ondoan aparkatuta zegoen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

7

## Modesto Martin Sanchez

---

**Data:** 1982/03/15.

**Adina:** 41 urte.

**Non jaioa:** Pinofranqueado (Cáceres).

**Destinoa:** Pasaiako (Gipuzkoa) portuko zerga-zerbitzua.

**Bizilekua:** Errenteriako Beraun auzoko Maurice Ravel kalea.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren kaboa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Beraun auzoan, emaztearekin eta eskolara zeramaten bost urteko semearekin batera autoan zegoela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Rodolfo Martin Villa presidenteordea, Marcelino Oreja Espainiako Gobernuak EAEn zuen ordezkaria, Luis Maria Retolaza Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburua, eta Aramburu Topete Guardia Zibilaren teniente-jenerala Donostiako Gobernu Zibileko kaperan egin ziren hiletetara joan ziren.



# 8

## Jesus Ordoñez Perez

---

**Data:** 1982/09/14.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Jaenen jaioa, baina umetan senitartekoekin batera Valentziara joana bizitzera.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Gipuzkoako Polizia Nazionalea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenterian, Perurena eta Aitzpitarte-Landarbasoko haitzuloen artean egindako segada batean, bidean barna bi ibilgailu zihoazela: polizia uniformedunak zeramatzan auto bat eta bereizgarririk gabeko SEAT 131 bat, kale-jantzian zihoazen poliziak zeramatzana.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste hiru polizia hil ziren: Juan Seronero Sacristan, Alfonso Lopez Fernandez eta Antonio Cedillo Toscano. Beste polizia bat zauritu egin zuten: Juan Jose Torrente Teron. Julian Carmona sarjentuak, hildakoen kide ez ezik haietakoren batzuen adiskide ere bazenak, hurrengo egunean hildako polizien gaubeilan zegoela, bere buruaz beste egin zuen.

# 9

## Juan Seronero Sacristan

---

**Data:** 1982/09/14.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Gijon (Asturias).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Gipuzkoako Polizia Nazionalea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Erreterian, Perurena eta Aitzpitarte-Landarbasoko haitzuloen artean egindako segada batean, bidean barna bi ibilgailu zihoazela: polizia uniformedunak zeramatzan auto bat eta bereizgarririk gabeko SEAT 131 bat, kale-jantzian zihoazen poliziak zeramatzana.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste hiru polizia hil ziren: Jesus Ordoñez Perez, Alfonso Lopez Fernandez eta Antonio Cedillo Toscano. Beste polizia bat zauritu egin zuten: Juan Jose Torrente Teron. Julian Carmona sarjentuak, hildakoen kide ez ezik haietakoren batzuen adiskide ere bazenak, hurren egoanean hildako polizien gaubeilan zegoela, bere buruaz beste egin zuen.

# 10

## Alfonso Lopez Fernandez

---

**Data:** 1982/09/14.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Argentina.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Gipuzkoako Polizia Nazionalea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenterian, Perurena eta Aitzpitarte-Landarbasoko haitzuloen artean egindako segada batean, bidean barna bi ibilgailu zihoazela: polizia uniformedunak zeramatzan auto bat eta bereizgarririk gabeko SEAT 131 bat, kale-jantzian zihoazen poliziak zeramatzana. Segadan, Lopez Fernandez zauritu egin zuten, eta Donostiako Gurutze Gorrira anbulantzian zeramatela hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste hiru polizia hil ziren: Juan Seronero Sacristan, Jesus Ordoñez Perez eta Antonio Cedillo Toscano. Beste polizia bat zauritu egin zuten: Juan Jose Torrente Teron. Julian Carmona sarjentuak, hildakoen kide ez ezik haietakoren batzuen adiskide ere bazenak, hurrengo egunean hildako polizien gaubeilan zegoela, bere buruaz beste egin zuen.

# 11

## Antonio Cedillo Toscazo

---

**Data:** 1982/09/14.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Olivares (Sevilla).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Gipuzkoako Polizia Nazionalea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenterian, Perurena eta Aitzpitarte-Landabarsoko haitzuloen artean egindako segada batean, bidean barna bi ibilgailu zihoazela: polizia uniformedunak zeramatzan auto bat eta bereizgarririk gabeko SEAT 131 bat, kale-jantzian zihoazen poliziak zeramatzana. Tiroketen ostean, Cedillo Toscazo zauriturik gelditu zen, eta kamioilari batek jaso zuen ospitalera eramateko. Erasoan parte hartu zuten komandoko kideei, baina, kamioia gelditu eta Cedillo Toscazo hil zuten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste hiru polizia hil ziren: Juan Seronero Sacristan, Alfonso Lopez Fernandez eta Jesus Ordoñez Perez. Beste polizia bat zauritu egin zuten: Juan Jose Torrente Teron. Julian Carmona sarjentuak, hildakoen kide ez ezik haietakoren batzuen adiskide ere bazenak, hurrengo egunean hildako polizien gaubeilan zegoela, bere buruaz beste egin zuen.

# 12

## Carlos Manuel Patiño Casanova

---

**Atentatuaren data:** 1982/11/18.

**Heriotza-data:** 1982/11/23.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Villamayor (Coruña).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Drogeria baten jabea. Pintore eta papereztatzailea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Ospitalean hil zen, Errenteriako Kaputxinos auzoan, zenbait lankiderekin batera auto batean zegoela, autoa metrailatu eta atentatu horretan izandako zauri larrien ondorioz.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste bi pertsona ere zauritu zituzten: Esteban Fariñas Gonzalez, 26 urtekoa, eta Francisco Rosco Herrauzo, 38 urtekoa. Hiru lagunak pintoreak ziren lanbidez, eta beren ibilgailua guardia zibil batena izan zen. Hori dela-eta, hasiera batean ETAk huts egin zuela uste izan zen, eta, hain zuzen ere, denbora dezente pasatu zen ETAk komunikatu batean atentatua bere gain hartu zuen arte. Komunikatuaren berri eman zutenean, ordea, zera adierazi zuten: Patiño Casanova "informazio-talde berezi" bateko kide zela. Horrek izugarri haserrarazi zituen hildakoaren senitartekoak.

13

# Angel Flores Jimenez

---

**Data:** 1983/10/12.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** San Martín del Pimpollar (Avila).

**Destinoa:** Irungo Norteko Geltokiko Zerga Zerbitzua. Aurretik, 18 urte eman zituen Pasaian.

**Bizilekua:** Errenteriako (Gipuzkoa) Beraun auzoa.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Beraun auzoan, Norberto Almandoz kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

14

# Candido Cuña Gonzalez

---

**Data:** 1983/10/20.

**Adina:** 50 urte.

**Non jaioa:** Galizia. Burgosen bizi izan zen, han ezkondu baitzen.

**Bizilekua:** Errenteriako (Gipuzkoa) Zamalbide auzoa.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Okina. Pasaiaiko Molinao auzoko Ogilan okin-kooperatibako bazkidea. Postari aritu zen Errenterian.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Zubiaurre kaleko Tres Cepas tabernatik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** 1979ko apirilaren 21ean oso larri zauritu zuten beste atentatu batean.

15

# Pablo Garraza Garcia

---

**Data:** 1983/12/09.

**Adina:** 59.

**Non jaioa:** Allo (Nafarroa).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Emaztea gaixorik zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Taxilari jardun zuen zortzi urtez, baina istripu bat izan eta lana utzi behar izan zuen. Erretiroa hartua zuen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Udaltzainek aurkitu zuten gorpua, buruan tiro bat zuela, Errenteriako hilerri berriaren ondoan dagoen Zamalbide auzotik gertuko zuhaitzi batean.

**Prozedura:** Bahiketa eta galdeketa. Su-armaz hil zuten.

**Datu gehigarriak:** Errenteriako eta Alloko udalek oso gogor gaitzetsi zuten atentatua.



# 16

## Vicente Gajate Martin

---

**Data:** 1984/10/17.

**Adina:** 34 urte.

**Non jaioa:** Salamanca.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Udaltzaina Errenterian. 1979ko hauteskunderen aurreko Udal Batzordeko zinegotzia izan zen. PSEko eta UGT sindikatuko kidea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako San Marko kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Errenteriako Udalean atentatua gaitzesteko egin zuten ezohiko udalbatzarrean, egindako lanagatik kondekoratu zuten Gajate Martin, eta herritarrak dolu-egun batera deitu zituzten. Gaitzespenezko manifestazio handi bat ere egin zuten. Udaltzainek greba egin zuten. Handik zenbait astetara, Vicente Gajateren gurasoek, semearen galerak eragindako mi-nari ezin eutsirik, beren buruaz beste egin zuten (*El País*, 2012/09/10).

17

# Raul Suarez Fernandez

---

**Data:** 1991/06/08.

**Adina:** 24 urte.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** "Cocoliso" izengoitia zuen, Errenterian izen horixe ematen baitzieten familiako guztiei. Antza denez, birritan atxilotu zuten.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Iztieta Pasealekuan, txakurrarekin batera pasieran zebilela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** "Cocoliso" hil zutenek tiroz hil zuten haren txakurra ere.

# 18

## Jose Luis Luengos Martinez

---

**Data:** 1992/09/29.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Leon.

**Bizilekua:** Lau urte zeramatzan Gipuzkoan bizitzen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Telefonicoako filiala zen Elitel enpresako langilea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako (Gipuzkoa) Renfeko tren-geltokiaren ondoan autoa aparkatzen ari zela, buruan tiro egin zioten. Hilik eraman zuten ospitalera.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatua ETAREN "hutsegite" bat izan ote zen eta Jose Luis Luengos antzeko auto bat zuen polizia-inspektore batekin nahastu ote zuten pentsatu zuten familiakoek eta Er-tzaintzak. Bi hilabetetik gora igaro ziren ETAk atentatuaren berri eman zuen arte. 1992ko abenduaren 16an *Egin* egunkarian argitaratutako komunikatuan adierazi zutenez, "Guardia Zibilaren zerbitzu berezietako kolaboratzailea" zen biktima.

19

## Jose Luis Caso Cortines

---

**Data:** 1997/12/11.

**Adina:** 64 urte.

**Non jaioa:** Comillas (Kantabria).

**Bizilekua:** Irun (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** PPko zinegotzia Errenteriako Udalean. 1982an, beste batzuekin batera, Euskadiko Alianza Popular (AP) alderdia sortu zuen. Pasaiaiko Astilleros Luzuriaga enpresako galdaragile jubilatua.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Lagun bat hurbildu eta tiro egin zion buruan Irungo Juan de Arana kaleko Tranxe tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 20

## Manuel Zamarreño Villoria

---

**Data:** 1998/06/25.

**Adina:** 42 urte.

**Non jaioa:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Bost hilabete lehenago ETAk hil zuen Jose Luis Caso PPko zinegotziaren ordezkari zen Errenteriako Udalean, eta hilabete baino ez zuen egin kargu horretan. Galdaragilea zen, eta langabezian zegoen. Hogei urte eman zituen Pasaiako Astilleros Luzuriaga enpresan lanean. Birritan erre zioten autoa, eta etengabe mehatxatzen zuten. Errenteriako PPko zinegotzi batek, presioari ezin eutsirik, dimisioa eman zuen hilabete lehenago: lehergailu bat jarri zioten bere etxeko ate aurrean.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bere etxetik gertu, Errenteriako Kaputxinos auzoan.

**Prozedura:** Espaloian aparkatuta zegoen Amonalez betetako motozikleta bat urrutitik aktibatuta eta leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Juan Maria Quintana ertzain-eskolta larri zauriturik ingresatu zuten Donostia-ko Arantzazuko Ama Ospitalean. Urtebete geroago, Zamarreñoren alargunak, Marisol Fernandezek, senarraren erreleboa hartu zuen eta PPko zerrendetan aurkeztu zen.

# 21

## Froilan Elespe Inciarte

---

**Data:** 2001/03/20.

**Adina:** 54 urte.

**Non jaioa:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Urnieta eta Lasarte-Oria.

**Seme-alabak:** Bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** PSE-EEko militantea, 1987. urteaz geroztik, Lasarteko Udaleko alkateordea izan zen. UGT sindikatuko kidea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Sasoeta tabernan, Lasarteko Urko plazan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua. Bi tiro egin zizkioten buruan.

**Datu gehigarriak:** 2003ko maiatzean, Lasarten Froilan Elespe Parke Botanikoa inauguratu zuten bere omenez.

---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 2. **GAL**ek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Bixente Perurena Telletxea

---

**Data:** 1984/02/08.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Astigarragako Bentan, Errenteriaren, Astigarragaren eta Oiartzunen arteko mugan.

**Bizilekua:** Errenteriara ezkondu zen. Azken hiru urteak Hendaiari eman zituen familiakoekin.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Batetik, lantegi bateko langilea zen, eta bestetik, familiako enbriatzaile jarduten zuen. ETAko militantea.

**Egilea:** GAL.

**Heriotza-lekua:** Etxe aurrean beste errefuxiatu batekin zegoela tiro egin zioten, Hendaiako polizia-etxean jazarpenak salatu ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean hil zen 30 urteko Angel Gurindo Lizarraga olatzagutiarra.



# 2

## Jose Antonio Cardosa Morales

---

**Data:** 1989/09/20.

**Adina:** 22 urte.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Postaria. Aldi bateko kontratuarekin ziharduen lanean Errenterian. Antimilitarista, Kakitzateko kidea. Zintzilik irrati libreko kidea zen.

**Egilea:** Ez dakigu nor hil zuen, baina Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren txostenean eskuin muturreko taldeek edo "inkontrolatuek" hildakoen artean dago. COVITEK, *Mapa del Terror* argitalpenean, GAL aipatzen du.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Juan Olazabal kalean, HBko militantea zen Ildefonso Salazar Uriarteren postontzian gutun bat sartzera zihoala.

**Prozedura:** Bonba-gutun bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** 1996ko maiatzaren 5ean, Guardia Zibileko zuzendari ohiak, Luis Roldan Ibañezek, Jose Luis Corcuera ministroaren garaiko (1988tik 1993ra) Barne Ministerioari leporatu zion militante abertzaleei bonba-gutunak bidali izana. Cristina Cuestak, *Contra el olvido* liburuan, Concha Morales amaren larriduraren berri ematen du: "ETA izan zelakoan geunden, PSOEko politikariak nahasi zituen epaiketa hasi zen arte. (...) Lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako biktimak daude".



---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Isidro Susperregi Aldako

---

**Gertakarien data:** 1977/03/15.

**Heriotza-data:** 29/03/1977.

**Adina:** 68 urte.

**Non jaioa:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Acción Nacionalista Vascako (ANV) udal-batzordeko kidea.

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Amnistiaren aldeko manifestazio batean zegoela gomazko pilota batek harrapatu zuen, eta balantzaka iritsi zen Donostiako Askatasunaren Hiribideko kiosko bateraino. Hantxe aurkitu zuten etzanda. Gurutze Gorriaren ospitalean hil zen.

**Prozedura:** Gomazko pilota bat tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** 1977ko martxoaren 31ko El Pais egunkariak izenburu hau jarri zion albisteari: "Agure bat hilik, gomazko pilota baten ondorioz". Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 2

## Rafael Gomez Jauregi

---

**Data:** 1977/05/12.

**Adina:** 78 urte.

**Non jaioa:** Pasai Antxo (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Seme bat eta alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Pasaiako portuko langile motorista. ANVko hautagaia 1933ko hauteskunde orokorretan. ELAko Gipuzkoako Konfederazioaren presidentea 1936. urtera arte. 1941ean, heriotza-zigorra ezarri zioten "Araba Sareko" kide izateagatik, baina 1946an atera zuten espetxetik. Aliatuen alde egindako lana saritu zioten. Bitan alde egin behar izan zuen erbestera (Sellières-era, hain zuzen): lehenbizi, 1947an diktaduraren aurka egindako aurreneko greba politikoaren ostean, eta gero, 1951ko grebaren ostean.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Batzokiaren ondoan, amnistiaren aldeko astea ospatzen ari zirela, adin bereko adiskide batekin herrian pasieran zebilela.

**Prozedura:** Su-arma batekin tiro egin zioten, eta balak toraxa zeharkatu zion.

**Datu gehigarriak:** Tiro egin ziona "Ihes egin zidan" esan zuen (*Noticias de Gipuzkoa*, 2011/07/18). Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 3

## Jose Luis Cano Perez

---

**Data:** 1977/05/13.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Aranjuez (Madril).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa), familia hantxe bizi baitzen. Geroago, Donostian jarri zen bizitzen.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Tipografo egiten zuen lan *La Voz de España* egunkariaren tailerretan. CCOO sindikatuko kidea zen (Iriarte, 1995: 302).

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Iruñeko Manuel tabernaren sarreran, lepoan tiro bat jo ondoren. Lekukoen artean, Antsoingo alkatea zegoen.

**Prozedura:** Pistolarekin buruan jo ondoren, tiro egin zioten.

**Datu gehigarriak:** Udalbatzar batean, Iruñeko udalak segurtasun-indarren jokabidea gaitzestea erabaki zuen (*El País*, 1978/01/04). Kasu horri aldeko irizpena eman dio Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordeak, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 4

## Gregorio Maritxalar Aiestaran

---

**Gertaeren data:** 1977/05/13.

**Heriotza-data:** 1977/05/23.

**Adina:** 63 urte.

**Bizilekua:** Errenteriako (Gipuzkoa) Beraun auzoa.

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean, hamar egun lehenago, Errenteriako Biteri kaleko bere etxeko leihoan, bularrean tiroz zauritu ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Greba orokorraren bigarren eguna, gaueko 22:30ak ziren, eta kalean ez zen nabarmentzeko istilurik izan. Dirudenez, Errenteriako Altamira menditik bota zuten tiroa; bertan, Polizia Armatuaren patruila bat zegoen. Gobernadoreak kasua argituko zuela hitz eman zuen, baina inoiz ez zen jakin tiroa nork egin zuen.

# 5

## Vicente Vadillo Santamaria

---

**Data:** 1979/06/10.

**Non jaioa:** Jaen.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Egilea:** Kale-jantzian zihoan polizia bat.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Apolo diskotekan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako tiroa aurpegian.

**Datu gehigarriak:** Lekukoen eta EHGAM elkarteak bildutako datuen arabera, Vicente Vadillo euskaldunen alde hasi zen, erasotzailea haien aurka garrasika ari zela (“Euskaldunen bat akabatuko diat”, “Euskadik nazkatuta nauka”...). Errenteriako Udalak aho batez gaitzetsi zuen atentatua, familiari babesia agertu eta haiekin kolaboratzea erabaki zuten, gorpua bere herrira eraman zezaten. Hilaren 14an, Errenterian greba orokorra egin zuten. Kalez jantzitako polizia 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela.



---

## I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

### 4. **Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak**

---

1

# Clemente Del Caño Ibañez

---

**Data:** 1977/05/13.

**Adina:** 36 urte.

**Non jaioa:** Irungo Bentan.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Bilbo-Behobia autopistako langilea.

**Egilea:** Identifikatu gabeko ibilgailu batek harrapatu zuen.

**Heriotza-lekua:** Autopistan, Erretereria parean, barrikada bat kentzen ari zela, auto batek harrapatu zuen.

**Datu gehigarriak:** Greba-eguna zen, Amnistiaren aldeko Astearen kariatara deitua. Antza denez, guardia zibilek autopistan zeuden barrikadak kentzera behartu zuten.

---

## II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**

---

# 1

## Teodora Sanchez Ofertorio

---

**Gertaeren data:** 1979/06/29.

**Heriotza-data:** 1979/06/30, goizaldeko lehen orduetan.

**Adina:** 77 urte.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea.

**Egilea:** Polizia Nazionalaren jeep batek harrapatu zuen (El País, 1979/07/01).

**Heriotza-lekua:** Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean, aurreko egunean Errenteriako Nafarroa Hiribideko zebra-bide bat igarotzen ari zela larri zauritu ondoren.

**Prozedura:** Batzar baten ostean hasitako manifestazio bat sakabanatu nahirik abiadura bizian eta kontrako norabidean zihoan poliziaren jeep batek harrapatuta.

**Datu gehigarriak:** Jeepak emakumea harrapatu ostean, zauritu ugari izan ziren. Haietako hiru oso larri zauritu ziren, eta ospitalera eraman behar izan zituzten: Arantxa Iparragirre, Miguel Gonzalez eta Jose Peña.

# 2

## Miguel Garmendia Picasarri

---

**Heriotza-data:** 1984/05/09.

**Adina:** 41 urte.

**Bizilekua:** Donostia.

**Egilea:** Kamioi baten kontra jo, barrikada batean.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako kaputxinoen aldapan behera, orduko N-1en.

**Prozedura:** Gidatzen zuen Ford-Scort autoak kamioi baten kontra jo zuen; kamioia Errenteriako Quirogako izkinan zegoen barrikada baten aurrean zegoen geldituta.

**Datu gehigarriak:** Egun horretan, pertsona batzuek edukiontziak eta bestelako trasteak jarri zituzten errepidean, udalerrian hilaren 7an gertatutakoaz protesta egiteko. Egun horretan, kalez jantzitako polizia batek José Puerto Espina gaztea, 23 urtekoa, balaz zauritu zuen, GALek tiroz hildako Rafael Goikoetxearen heriotzagatiko protestetan. Maiatzaren 9ko egun horretan bertan, Frantziako Administrazioak Caracaserara deportatu zituen Jon Sáez Treku eta Jesús Urteaga erre-fuxiatuak, Komando Autonomoetako ustezko kide biak ere. Miguel Garmendia Picasarri "Terro-rismoak hildako indemnitzatu" gisa dago jasota Barne Ministerioaren zerrendan. In Memoriam pro Pax zerrenda kenduta, ez da agertzen gainerako biktima-zerrendetan. Jasotzen da, berriz, "Hacia una memoria compartida" (Argituz, 2015) dokumentuan, "Otros hechos de violencia política con resultado de muerte" atalean.



---

## Erabilitako iturri eta zerrendak

---

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, [www.abc.es/especiales/eta/victimas](http://www.abc.es/especiales/eta/victimas)
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), [www.argituz.org](http://www.argituz.org)
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). [www.arovite.com/bases-de-datos/](http://www.arovite.com/bases-de-datos/)
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.avt.org](http://www.avt.org)
- Barne Ministerioa. [www.interior.gob.es/](http://www.interior.gob.es/)
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.covite.org](http://www.covite.org)
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. [www.elpais.com/especial/eta/victimas.html](http://www.elpais.com/especial/eta/victimas.html)
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com)
- Eusko Jaurlaritz. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/)
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). [www.fundacionfernandobuesa.com](http://www.fundacionfernandobuesa.com)
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritz. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2008. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es)
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. [www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/](http://www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/)

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. [www.lbfundazioa.org](http://www.lbfundazioa.org)
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. [www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/](http://www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/)
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. [www.fundacionvt.org](http://www.fundacionvt.org)
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. [www.alava.net](http://www.alava.net)
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. [www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion\\_documentos\\_interes/es\\_document/adjuntos/informe%20final.pdf](http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf)
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.